

"ARKALAZ" ALDIZKARIA (ZORNOTZA'N)



Arana'tar Pedro-Juan'ek esan eustan, gure koru-abestien biltokian Zornotza'ko aldizkari barri baten aurkezpena egongo zala 2001'an urtarrilla'ko 19'an arratsalde'ko 6'etan, eta gure arteko gauza eder oiek jakin-egarria sortzen daben lez, bertara joateko beartu ginduzan.

Aldizkaria ikusi nebanean, oso dotorea bera eta atsegin guztiz egiñekoa iruditut jatan. Aldizkariaren aurrealdean Lauzirika'tar Daniel, gure koru-abestien urte askotan, abeslari oso jatorra eta ona dana eta benetan poztu nintzan. Leenengo, lan guztia euskeraz idatzita dagolako: Bigarren, Bizkaieraz: Eta irugarren, Zornotza'n, ordua zalako gazteen artean erri-miña agertuaz, arduratu egin daitezan gure erriaren Euskal-Nortasuna sendatuz osasun onenagaz aurrerantza bultzatzeko.

Batzarraren maia: Fernandez'tar Joseba koraleko elkartearen lendakaria, Lobera'tar Gotzon Aldundi'ko arduraduna, Fundarena'tar Ana Ester Udaletxeko arduraduna, Aurtenetxe ta Eloorriaga'tar Karmele eta Ingunza ta Renteria'tar Maite "ZORNOTZA EUSKERA ALKARTEA'ren aldizkaria" atara dabenaren ordezkioak ziranak osotu eben. Beste gazte batzuk be egon ziran mai-aurrean, aldizkariaren aurkezpena irakurri ostean Alkartearen kide eta arduradunak dirala konturatuz: Legina'tar Xabier, Ingunza'tar Unai, Iturbe'tar Andoni, Korta'tar Asier, Goienetxe'tar Gorka, Jauregi'tar Igor, De Pedro'tar Alex, gazte oso jatorrak diranak eta arduradunak, ikusten dan lez.

Maiko aurkezleak danak mintzatu ziran koral-elkarteen lendakaria asita: bear daben guztirako tokia prest daukiela Alkarteari eskaiñiz: Aldundiko arduradunak be bardin, bear daben laguntza aldetik; eta bai Udaleko arduradunak be, bear daben diruaren laguntzagaitik. Dana Euskera'ri eskaiñi eutsoen berba gorezgarriakaz, baiña danez gain, Aurtenetxe'tar Karmelek esan ebanaz geratu nintzan: erri guztietan asi zirala erriko aldizkariak Euskaraz argitaratzen, eta gu ez gara gauza izango beste ainbeste egiteko? Askotan entzun dot gure arrear: Euskera Batua Bizkaieraren amaiera edo eriotza izango zala a sortu zanetik, eta Euskalerri'ko ainbat arraldoi aundi ikusi nebazan oso kezkatutik, euren indar eta ardura guztiaz ori gertatu ez daiten. Aita

Santi'ri itaun egiten neutson orduan: "Eta zuen ostean zer?"

Bere erantzuna beti izan zan bardiña: "Atzean datozen belaun-aldien naia izango zala". Eta ikusten ari garana oso arduradunak dirala, eta Bizkaiera, euren Lurraldeko izkuntza biotz-biotzean maitasun aundiagaz sartuta daukela.

Nik uste dot, ori dala bidea gure Euskalerri maite oneri askatasuna emoteko.

ATUTXA'TAR PAUL
ZORNOTZA'N 2001'an urtarrilla'ren 24'an